

# GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2016ko martxoaren 18an aurkeztuko du

## **Louise Bourgeois** **Izatearen egiturak: Gelak**

Babeslea

Fundación **BBVA**

BBVA Fundazioa ezagutza zabaltzeari eta berrikuntzari babes emateagatik nabarmentzen da, oinarritzko zientzietan, ingurumenean, teknologia berrietan, biomedikuntzan eta osasunean, humanitateetan nahiz kulturaren arloan. BBVA Fundazioak garatzen dituen lerro estrategikoen artean bat, bikaintasun-bazkideekin eta ibilbide luzeko programetan Kulturaren arloan eragin handiko ekintzak bultzatzea da. Esparru honetan kokatzen da Guggenheim Bilbao Museoaren Babesle Estrategiko gisa jardutea, eta hala egin dugu duela hemezortzi urte baino gehiago museoa inauguratu zenetik. Babes horri esker, Espainian aurretik inoiz ikusi gabeko lanak biltzen dituzten erakusketa garrantzitsuak antolatu dira, eta erakusketa horien diseinuari eta kontzeptuari dagokionean, benetan ikuspegi orijinalak erabiltzeko aukera izan dugu. Kasu honetan, Guggenheim Bilbao Museoak, gure babes azpimarragarriarekin, Louise Bourgeois artista frantses estatubatuarren *Gelak* serieari inoiz eskaini zaion erakusketa garrantzitsuena antolatzeko aukera ematen digu. BBVA Fundazioarentzako laguntza hau aukera paregabea da egile honen produkzioaren funtsezko alderdi bat ezagutzera ematen laguntzeko. Bertan, bere lanean eragina izan duten kezka gehienak aipatzen dira.

Bourgeois beraren hitzetan, bere artea existentzialista da eta guztiari zentzua emateko balio dio. Psikoanalisisiko ariketa baten moduan, inkontzientean sakontzeko eta iraganeko alderdi jakin batzuk —batez ere bere haurtzarokoak eta bere familia-harremanei lotuak— goraiatzeko balio dio. Gelek sinbolismo bikoitza dute eta gordeleku bezala edo babes- edo itxialdi-espazio gisa uler daitezke. Lan horietan arte garaikidea bereizten duten hainbat alderdi uztartzen dira, hala nola, alderdi objektuala, formala, espaziala, psikologikoa, esperientzia eta subjektibotasuna.

*Gela* gehienak iraganaren berreraikuntzak dira, eta berrerabilitako altzariak eta elementu arkitektonikoak erabiliz osatu dira, adibidez atea, leihoak, alanbre-sareak, industria-edukiontzia, baita igogailu bateko kabina ere. *Gela* horien barruan artistaren testuinguru biografikotik hartutako objektuak aurkituko ditugu askotan: lurrin-flaskoak, tapizak, lanparak, ispiluak eta kristalezko esferak, baita eskulturak ere. Eskultura hauek, askotan, giza gorputzaren zatiak (eskuak, buruak, gorputz-enborrak) irudikatzen dituzte. Barruti hauetan, baita erakusketa honetan ikus daitezkeen eta *Gelen* aitzindaritzat jo daitezkeen obretan ere, Bourgeoisek bere piezak sortzean erabiltzen zuen ekuazio hutsezina betetzen da: mina gutxitzen bada, tentsioa murrizten bada, konpultsioa desagertzen bada eta mina kentzen bada, eskulturak funtzionatuko du.

Artea eta kultura hedatzen laguntzeko espirituari eta ausardiari eutsiz, BBVA Fundazioak —erakusketa paregabe honi babes eskainiz— beste behin ere itzal handiena duen gaur egungo artea Guggenheim Bilbao Museoko bisitariei hurbildu nahi izan die.

Juan Ignacio Vidarte Guggenheim Bilbao Museoko zuzendari nagusia, erakusketa hau egitea ahalbidetu duen talde osoa eta, bereziki, Julienne Lorz eta Petra Joos zoriondu nahi ditut. Ziur nago guztiok estimatuko dugula *Gelak* lanen bitartez Louise Bourgeois en unibertso pertsonala azaltzen duen erakusketa berezi hau. Goza ezazue.

Francisco González  
BBVA Fundazioko presidentea

### *Louise Bourgeois. Izatearen egiturak: Gelak*

- Egunak: 2016ko martxoaren 18tik irailaren 4ra
  - Municheko Haus der Kunst-ek antolatutako erakusketa Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan
  - Komisarioak: Julienne Lorz eta Petra Joos
  - Babeslea: BBVA Fundazioa
- 
- ***Gelak* museoen arloaren, eszenografiaren eta instalazioaren arteko erdibidean kokatzen dira, eta honako gaiak lantzen dituzte: memoria eta emozioak, nahigabea, larritasuna eta, zehazki, bazterrean uztearen beldurra .**
  - **Espazio arkitektoniko berezi hauetan, artistak, aurkitutako hainbat objektu —arropak, altzariak, eskultura bereziak eta abar— ipintzen ditu, eta emozioz betetako antzetzokiak osatzen ditu.**
  - **Bourgeoisentzako ingelesezko “cell” hitzak hainbat konnotazio zituen, espetxe edo monasterio bateko banakako ziega zein organismo bizidun baten zelula biologikoa esan nahi baitu.**

Guggenheim Bilbao Museoak *Louise Bourgeois. Izatearen egiturak: Gelak* aurkezten du, Louise Bourgeoisek (1911–2010) —XX. mendean itzal handienetakoa izan duen artista— bi hamarkadetan garatutako eskultura-obra berritzaileen eta sofistikatuen adibide zabala. Guggenheim Bilbao Museoarekin lankidetzan Municheko Haus der Kunst-ek antolatutako erakusketa honetan, ikusleek barruko eta kanpoko munduak bereizten dituzten eta, kasu bakoitzean, mikrokosmos berezi bat irudikatzen duten emozioz betetako 28 gune arkitektoniko ezagutu eta esperimintatu ahal izango dituzte. Bilboko erakusketa BBVA Fundazioaren babesari esker egingo da.

Louise Bourgeoisen ideiak eta berrikuntza formalak, besteak beste, artelanetan psikoanaliaren eta feminismoaren inguruko nozioak txertatzea, lanen kopapena ingurumen-instalazio gisa taxutzea eta antzeppenarekin lotutako formatuak lantzea, gaur egungo artearen funtsezko elementu bihurtu dira. Horren adibide bikainak dira *Gelak*. Bourgeoisek serie hau 1986an *Artikulatutako gordelekua* (*Articulated Lair*) piezarekin hasi zuen, eta 60 artelan berezi inguruz osatua dago.

Erakusketa hau dela eta, letik VIra zenbatutako *Gelak* lehen aldiz elkartu dituzte 1991z geroztik, Pittsburgh-eko Carnegie International erakusketan lehen aldiz bildu zirenetik. “Cell” terminoa Carnegie-n erakusketa hura prestatzen ari zirenean sortu zen. Bourgeoisentzako ingelesezko “cell” hitzak hainbat esanahi ditu, organismo bizidun baten zelula biologikoa zein espetxe edo monasterio bateko banakako ziega esan nahi baitu.

Hiru urteren buruan, 1994an, artistak armiarma itxurako lehen eskultura egin zuen. Garai hartan 80 urte baino gehiago zituen arren, Louise Bourgeoisek, beste behin ere, bere lanerako metodoak berriro asmatzea eta bere pieza handienetako batzuk egitea lortu zuen, 1980an bere lehen estudio handia erosi ondoren. Ordura arte Chelseako bere etxean aritu zen lanean. Bertan, lau metro inguruko zabalerako espazioek erabat baldintzatzen zituzten bere eskulturen neurriak. Brooklyngo estudio berria oso egokia izan zen neurri handiko piezak lantzeko.

Estudioak ere material berri ugari erabiltzeko aukera eskaini zion Bourgeois. Horrela, bizilagunengandik eta artistaren bizitza pribatutik hartutako objektuak *Gelak* lanetan erabili zituen, hala nola aurretik bere estudioan kokatuta zegoen arropa-fabrikako altzairuzko apalak (*Artikulatutako gordelekua*, 1986) edo bertako teilatutik hartutako ur-depositua [*Likido preziatuak* (*Precious Liquids*), 1992]. 2005ean Brooklyngo estudioa utzi behar izan zuenean, bertan zegoen eskailera kiribila gorde zuen. Beranduago, eskailera hori serie honetako azken lanean erabili zuen: *Gela* (*Azken igoera*) [*Cell* (*The Last Climb*), 2008].

*Gelak* seriea aldi berean gogoratzeko eta ahazteko nahiaren inguruan mugitzen da. “Zure istorioa kontatu behar duzu eta ahaztu egin behar duzu. Ahaztu eta barkatu egiten duzu. Horrek askatu egiten zaitu”, adierazi zuen behin Bourgeoisek. Horren haritik, *Gelak* seriean iraganeko esperientziei eta pertsonai egiten zaie erreferentzia. Artelanetan erabiltzen dituen orratz, hari eta ardatzak artistaren haurtzaroari eta bere gurasoen lanbideari lotuak daude, bere ama tapiz baliotsuak zaharberitzen aritzen baitzen. *Gelak* lanetan utzikeria, traizioa eta galera ere aipatzen dira, neurri batean Bourgeoisek etxean bizitako tentsio handiaren ondorioz. Alde batetik, Louisen aitak ama familiako Sadie izeneko *au pair*-arekin engainatu zuen. Sadie eurekin bizi izan zen ia hamar urtez. Bestetik, ohiko rolak inbertituz, Louisek bere ama zaindu behar izan zuen. Ama oso gaixo jarri zen eta bere osasuna okerrera nola egiten ari zen aitari ezkututzen laguntzeko eskatu zion Louiseri. Horrela, elkarren aurka jarritako emozioen korapilo batean murgildu zen Louise: mirespena eta elkertasuna, amorrua eta ezintasuna.

Artistak berak bere obra bere trauma pertsonalekin erlazionatu zuen. 1982an *Artforum*erako testu autobiografiko ilustratu bat sortu zuen. Testuan bere haurtzaroko esperientzia traumatikoei buruz hitz egiten zuen. Garai horretan bertan, New Yorkeko Museum of Modern Art museoak jada 70 urte beteta zituen artista omendu zuen atzera begirako baten bitartez. Museoak atzera begirako erakusketa bat emakume bati eskaintzen zion lehen aldia zen.

Kategoria eskultoriko berri bezala, Louise Bourgeois *Gelak* “museo-panoramaren, eszenografiaren, giroaren edo instalazioaren arteko lekuren batean kokatzen dira; eskala honetan eta maila formalean, artearen historian parekorik ez duen entitate eskultorikoak dira”. (Julienne Lorz).

## Erakusketan barrena ibilbidea

### 208. aretoa

“*Gelak* sortzen hasi nintzenean nire arkitektura propioa sortu nahi nuen, museo baten espazioaren mende eta nire eskala museo horren espaziora egokitzen egoteko beharrik ez izateko. Espazio erreala bat eratu nahi nuen norbera bertan sartzeko eta bere barruan mugitzeko”. Louise Bourgeois.

Espazio honetan hainbat urtetan egindako *Gelak* bildu dira. Bourgeoisentzako *Artikulatutako gordelekua* (*Articulated Lair*, 205. aretoa) bere lehen *Gela* zen, izen hau 1991. urtera arte erabili ez bazuen ere, Carnegie International-erako *Gelak I-VI* (208. aretoa) sortu zituenean.

Orduan, bere estudiotik (aurretik jantziak egiteko tailerra izan zen) edo eraitsitako eraikinetatik hartutako ateak, leihoak eta sare metalikoa bezalako elementu arkitektonikoak erabili zituen. I.etik VI.era *Gelak* sekretismoaren, voyeurismoaren eta sufrimendu fisikoaren eta psikologikoaren gaiak lantzen dituzte. *Gela* hauekin batera *Barruan eta kanpoan* (*In and Out*, 1995) lana aurkitzen dugu. Louise Bourgeoisek Jean Martin Charcot (1825–1893) neurologo polemikoarenganako interesa erakutsi zuen. Neurologo honek, Sigmund Freud bere jarraitzaileak bezala, histeria-krisi batean gorputza zergatik makurtzen den ikertzen saiatu zen. Haiei bezala, Bourgeois arduratuta zegoen larritasunak eta beldurrak gorputzaren bitartez fisikoki adierazteko zuten moduagatik. Askotan histeria emakumearen izaerari lotzen zitzaionez, Bourgeoisek posizio horretan —bizkarra okertua— zegoen gizon bat erakustea erabaki zuen, eta figura hori atsekabe- edo plazer-egoera batean ote zegoen galdera irekita utzi zuen.

Hemen erakusten den irudi biluzia eta buru gabea, ispilu-akabera duten esferek eta ispiluek itxuraldatuta eta deformatuta agertzen da. *Gelako* hormetara lotuta dauden haragia xehatzeko makinek gorputzaren desegitea sinbolizatzen dute, eta *Gelaren* kanpoaldeko arrosa koloreko forma organikoak, berriz, barruko organo anatomikoak iradokitzen ditu.

### 206. aretoa

*Gela* (*Choisy*) [*Cell* (*Choisy*), 1990–93] lanean, Bourgeoisek haragia gogoratzen duen marmol arrosaz egindako bere haurtzaroko etxearen erreplika egin zuen. Bere gainean dagoen gillotinak iragana sinbolizatzen du, orainaldiak ebakitzen duen iragana. *Igarobide arriskutsua* (*Passage Dangereux*, 1997, 207. aretoa) eta *Likido preziatuak* (*Precious Liquids*, 1992, 209. aretoa) laneak hainbat iragate-errituetatik igarotzen den gazte bati buruzko narratibak eskaintzen dituzte.

Areto honetan ere aurkituko dugu “bitxikerien kabinetea” edo “gauza harrigarrien kabinetea”. Bertan, 1943. eta 2010. urteen artean Bourgeoisek sortu zituen marrazki eta eskultura batzuk ikus daitezke. Besteak beste, lan horiek elkarri lotuta daude espazioaren gaia lantzen dutelako: etxeo espazioa, espazio fisikoa, espazio isolatua eta espazio sinbolikoa.

*Emakume etxea* (*Femme maison*, 1982, 1994, 2001) deitutako eskulturetan espazioak irudizko eraikin-forma hartzen du. Hala ere, *Erretore-etxea* (*The Rectory*) lanean, Bourgeoisen New Yorkeko etxearen aurrean jatorrian zegoen erretore-etxea hartu zuen abiapuntu gisa. Artistak, askotan, emakumearen eta amaren gorputza aipatzen du beste barruti bat izango balitz bezala. Kristalezko kanpai baten azpian kokatutako aulki batek, berriz, isolamendua eta bakardadea iradokitzen ditu. Gai hauek behin eta berriro agertzen dira *Gelak* serie osoan. *Gordeleku* deitutako eskulturetan espazioa iradoki egiten da eta partzialki bakarrik ikus daiteke. Alderdi hori bat dator obra hauen izenburuekin, izenburuek ezkutatze leku bat, zulo bat, aipatzen dutelako.

*Gela IX*, 1999 lanean, kontu handiz kokatutako marmolezko eskuek bestearekiko mendetasuna adierazten dute. Bourgeoisek honako hau zioen: “Beste pertsonarekin erlazioak motibatzen nau. Giza izaera zizelkatzen dut eta nire formak nire gorputzaren barrutik irteten dira”. Angeluan ipinitako hiru *Gelak*ko ispiluek bertan dauden elementuak gehitu egiten dituzte eta, aldi berean, behatzailea obraren partaide egiten dute, gelaren barruko eszenaren ikuspegi diferenteak eskainiz. Artistak adierazten zuen moduan, “angelu berri bakoitzarekin errealitatea aldatu egiten da”.

Areto honetan ere *Egiten dut* (*I Do*), *Desegiten dut* (*I Undo*), *Berregiten dut* (*I Redo*), 1999, lanen maketak erakusten dira. Jatorrizkoak tamaina naturaleko dorreak dira —haietara igotzeko aukera dago—. Lan hauek Londresko Tate Modern-en aurkeztu ziren 2000. urtean.

Areto honetan bertan *Pertsonaia* (*Personnage*) eskulturak daude, elkarren artean erlazionatutako talde txikitik antolatutak. Artelan hauen elkarrekintza espazialak, hurbiltasunaren eta distantziaren arteko erlazioak, eta bisitariarekin sortzen duten loturak ingurumen-instalazioaren arteari Bourgeoisek egindako ezohiko ekarpen goiztiarra izan ziren.

## 207. aretoa

*Bigarren erruduna* (*Culprit Number Two*, 1998) lanaren egitura irekiagoa da eta *Gelak* seriearen aitzindari izan ziren beste lan batzuk gogoratzen dizkigu, adibidez, *Irteerarik gabe* (*No Escape*, 1989, 206. aretoa) lana. Eserita dagoen pertsonak, “errudunak”, ispiluko bere islari aurre egiten dio; geziek, berriz, agresibitatea eta liskarra sinbolizatzen dute.

Bourgeoisek honako hau zioen: “Ispiluak nire burua onartzea esan nahi du. Horregatik ni ispilurik gabeko etxe batean bizi izan naiz, jasangaitza gertatzen zitzaidalako, nire burua ezin nuelako onartu. Ispilua nire arerioa zen.”

## 209. aretoa

*Armiarma* (*Spider*, 1997) Bourgeoisen forma ikonikoenetako bat da. Bere amarenganako oda gisa sortu zuen. Bere oihala tapiz-zatiak eta beste objektu batzuk dituen arkitektura batean eraldatzen da.



*Logela gorria (Gurasoak)* [*Red Room (Parents)*, 1994] eta *Logela gorria (Haurra)* [*Red Room (Child)*, 1994] elkarren artean parekatuta dauden serieko *Gela* bakarrak dira. Artistarentzako kolore gorriak odola, indarkeria eta arriskua, lotsa, zeloak, maltzurkeria eta kulpa sinbolizatzen ditu. Adierazgarria da obra hauen kanpoaldeko armazoia Manhattango auzitegi bateko ate zaharrekin eraiki izana.

*Logela gorria (Haurra)* lanak artistaren haurtzaroari lotutako elementuak ditu: ardatz gorriek eta urdinek eta orratzek bere familiaren tapizen tailerra ekartzen dute gogora, heldu baten eskuen gainean jarritako haurren eskuek segurtasun-grina iradokitzen dute, eta “moi” [ni] eta “toi” [hi] hitzak bordatuak dituzten eskuzorroek nahi hori indartzen dute. Oroitzapenak, objektu misterioitsuak, espiral formako konfigurazioak eta eguneroko objektuak nahasten dira erretratu psikologiko bat dirudien atmosfera-konposizio bat sortzeko.

*Logela gorria (Gurasoak)* izeneko lanean, berriz, espazioa ordenatuagoa erakusten da. Ohearen – intimitaterako eta sexurako lekua– aldeetara bi gorputz-enbor biluziren marmolezko bi eskultura ikus daitezke. Eskultura hauen zati bat oihalez estalia dago. Ohearen gainean, xilofono baten zorroak eta jostailuzko tren batek haur baten presentzia iradokitzen dute. Haurraren ikuspegitik sexualitatea ezkutatu ohi den misterioa da. Gurasoen bi bururdien artean, haurra gurasoen artean uzurtuko litzatekeen bezala, “Je t’aime” [maite zaitut] bordatuta daraman kuxin bat ikus daiteke.

## 202. aretoa

Erretratu batek modeloaren kanpoko itxuraren irudikapena zein bere nortasunaren eta emozioen adierazpena biltzen ditu. Horrela, hemen erakusten diren *Erretratu gelak (Portrait Cells)*, 2000–01) lanetan oihal-zatiekin eskuz jositako buruek funtsezko giza sentimenduak irudikatzen dituzten forma sinboliko gisa funtzionatzen dute, eta egoera emozionalen erretratuak dira. Buru asko artistaren bilduma pertsonalaren arropa eta mantekin eginak daude. Ehunekin lan egitea Bourgeois en amaierako obren ezaugarria da eta bere haurtzaroa gogoratzen du, bere amak tapizak nola josten eta konpontzen zituen begiratzen geratzen zen une haietara garamatza.

*Untxi-larruak, txatalak eta txatarra salgai (Peaux de lapins, chiffons ferrailles à vendre)*, 2006) izenburua lotuta dago kaleetan euren erosgaiak saltzen zituzten eta Bourgeoisek txikitik entzuten zituela gogoratzen zen trapuketarien ahotsekin. Zintzilikatuta, iztupaz josiak eta tearekin tindatutako oihal-zakuek utero hutsa sinbolizatzen dute. Larruak Bourgeois en aitak eta nebak bera gazte zenean harrapatzen zituzten eta heldua zenean ahizpak hazten zituen untxiekin lotuak daude.

*Gela XXVI*, 2003 lanean zintzilik dagoen oihalezko figura *Kiribil emakumea (Spiral Woman)*, 1984) izeneko aurreko eskultura baten aldakuntza da. Bourgeoisentzako *Kiribil emakumea* autorretratu bat zen eta guztiok esperimendatzen dugun niarekin borroka sinbolizatzen zuen. Zintzilikatua egoteak hauskortasuna eta ahultasuna irudikatzen ditu. Espiral-forma oso gustukoa zuen artistak, bi noranzkotan bira emateko aukera ematen ziolako: barrurantz, desagertu arte; eta kanporantz, infinitura arte.

*Gela XXVI eta Untxi-larruak* lanekin batera, *Gela (Egun goibelak)* [*Cell (Black Days)*, 2006] lana Bourgeoisek obalo formarekin sortu zuen serie honetako obra bakanetako bat da. Aurreko lan batzuetan jada agertu ziren kristalezko kanpai baten azpian aulkia, esferak eta janzteko arropak ditu, beste elementuen artean. Artistarentzako elementu horiek memoriaren, iraganeko pertsonen oroitzapenaren eta janzten zituenean etortzen zitzaizkion sentimenduen ezaugarriak dira. Kristalezko kanpaiaren azpian dagoen aulki isolatuak itxialdi-sentsazioa gogoratzen du, baina artistarentzako babesgune bat ere bada. Beste behin ere ardatzek eta hariak bere gurasoen tailerra oroitarazten dute, baina horretaz gain, trauma-sentsazioa, eta zauri psikologikoak sendatzea ere oroitarazten dute.

### 203. aretoa

Inorantz igotzen den eskailera lehen aldiz *Irteerarik gabe* (1989, 206. aretoa) lanean agertzen da. *Gela (Azken igoera)* [*Cell (The Last Climb)*, 2008] laneko eskailera kiribila Bourgeoisek Brooklynen zuen estudioetik hartu zuen. Flotatzen ari direla diruditen esfera gardenek eta barrualdea igartzen uzten duen sare metalikoak oso itxura arina ematen diote lanari. Bourgeoisentzako goma urdin argiko tanta autorretratu bat da, eta armiarma baten sarea bezalakoa da: tantatik hari batzuk zintzilik daude eta *Gelaren* hormetara atxikita dauden bobinak lotzen dituzte. Lurrean agertzen diren zurezko esferak emakumearen eta gizonaren gorputzen sinboloak dira. *Gela (Azken igoera)* serie honetako azken obretako bat da. Hemen, 2010eko maiatzaren 31n hil baino pixka bat lehenago Bourgeoisek sortu zuen *Dena opari (I Give Everything Away)*, 2010) izeneko paperean egindako obraren sei panelez inguratua dago.

### 204. aretoa

Azkenik, *Aitaren suntsiketa (The Destruction of the Father)*, 1974) obraren bitartez, artistak gezurrezko mendeku-ekintza erakusten du: gau batean, mahaian eserita, amak eta seme-alabek aita gainditzen dute eta suntsitu egiten dute kanibalismo-ekintza baten bitartez. Obra honek haurra zenetik Bourgeoisek bere aitarekin izan zuen harreman gatazkatsua erakusten du.

## Biografia

1911ko abenduaren 25ean Parisen jaio zen Bourgeois eta haurtzaroaren zati bat handik hurbil dagoen Antony auzoan igaro zuen. Bertan gurasoek tapizak konpontzeko tailerra zuten. Bourgeois Sorbonan matrikulatu zen filosofia eta matematika ikasteko. 1932an ama hil zitzaionean, matematikako ikasketak utzi eta artea ikasten hasi zen Fernand Léger-en eta beste artista batzuen estudio, eskola eta akademiatan. 1938an Robert Goldwater arte-historialari estatubatuarra ezagutu zuen, eta urte horretan bertan berarekin ezkondu zen. New Yorkera joan ziren bizitzera.

*Etxea emakumea (Femme maison)*, 1945–47) pintura goiztiarrek arkitekturaren eta gorputzaren, emozioen eta memoriaren, kontzientearen eta inkontzientearen, sinbolikoaren eta errealearen inguruan zuen interesa erakusten dute.



1940ko hamarkadaren erdialdera eta jada hiru seme-alaba zituela, Bourgeoisek zurezko bere lehen eskulturak egin zituen. Pertsonaia hauek, modu jakin batean kokatuta, giro-instalazio moduan, Peridot Gallery-n erakutsi zituen 1949an eta 1950ean. Bourgeoisek ere taldeko erakusketa batzuetan parte hartu zuen AEBko espresionista abstraktuekin batera, eta Marcel Duchamp, Joan Miró eta beste artista europar batzuekin ere harremanak izan zituen. 1951. urtean bere aita hil ondoren, Bourgeoisek depresio sakona jasan zuen eta psikoanalisisira jo zuen. Garai horretan bere lanak tarteka erakutsi zituen, baina 1964. urtera arte ez zuen bakarkako erakusketa bat egin. Urte horretan, New Yorkeko Stable Gallery-n igeltsu, latex eta gomaz egindako forma organiko batzuk aurkeztu zituen. 1982an, hiri horretako Museum of Modern Art-ek bere historian emakume artista bati museoak eskaintzen zion bere lehen atzera begirako erakusketa egin zuen.

1980an, Bourgeoisek Jerry Gorovoy ezagutu zuen —urte askotan bere laguntzaile izango zena—, eta Brooklynen estudio bat erosi zuen. Horri esker formatu handiagoekin lan egiten hasteko aukera izan zuen. 1986. eta 2008. urteen artean, guztira, 62 *Gela* sortu zituen; horietako bost aitzindarizat jo dira; adibidez, 206. aretoan erakusten den *Irteerarik gabe* (*No Escape*, 1989) obra.

## Didaktika

Proiektu didaktiko bat prestatu du Museoak bisitariari artistaren unibertsoa helarazteko; proiektu honen barruan daude gune didaktiko bat, aretoetako orientatzaileen lana eta jarduera osagarriak. Proiektuan Louise Bourgeois lanaren ideia nagusiak biltzen dira, eta bizipen pertsonalei arreta berezia eskaintzen zaie, artistaren lanarekin lotura estua gordetzen baitute.

Korridore batean kokatua dagoen erakusketaren **gune didaktikoan**, funtsezko ideiak azaltzen dira, eta ibilbide bat egiten da. Ideia horien artean daude giza gorputzaren garrantzia, arkitektura, memoria pertsonala, psikea eta egora emozionalak. Hori osatzeko berari buruzko atal intimoagoa eskaintzen da. Bertan, Bourgeois barne-aberastasuna eta nortasun aparta islatzen dituzten artistaren beraren idatziak erakusten dira.

Bestalde, **aretoetako orientatzaileek** —Museoak egunero eskaintzen duen doako zerbitzua— euren ordutegia luzatuko dute eta, iPad-en bitartez, artistari eta bere lanari buruzko informazio zabalagoa eskainiko diete bisitariari, artelanak hobeto uler ditzaten laguntzeko. Azkenik, hona hemen jarduera osagarrietako batzuk.

### Partekatutako hausnarketak

Bisitaldi berezi hauetan Louise Bourgeois erakusketaren muntaiaren ezkutuko kontuak eta beste bitxikeria batzuk azpimarratzen dira; adibidez, *Arte arduradunen ikuspegia*, Petra Joos Bilboko erakusketaren komisarioaren eskutik, apirilaren 13an, eta *Funtsezko kontzeptuak*. Luz Maguregui Guggenheim Bilbao Museoko Hezkuntza koordinatzailearen bisita gidatua, apirilaren 20an.

### Sormen-saioak

Didaktika proiektuaren barruan ere aurkituko ditugu erakusketarekin lotutako sormen-saioak. Saio hauek ikuspegi artistiko bat dute eta “zuk zeuk egin” eslogana erabiltzen dute. Horren adibide dira

***Materialak artean*** tailerra –gazteek Bourgeois lanetan aurkitutako materialak aztertuko dituzte, eta euren eskulturak edo instalazioak egingo dituzte–, edo *Ehun eta puntadei buruz* tailerra. Azken honetan Bourgeois lan askotan atzematen diren “puntada” horietan sakontzeko aukera egongo da eta obra propioak diseinatu ahal izango dira, adibidez, tapizen bat.

Solasaldia: Louise Bourgeois

Jerry Gorovoy, Louise Bourgeois laguntzailea 30 urtez, eta Julienne Lorz, erakusketaren komisarioa, artista frantziar-estatubatuarren izaeraz eta lanaz mintzatuko dira Museoko Entzungelan martxoaren 16an.

*Louise Bourgeois. The Spider, The Mistress and the Tangerine* emanaldia

Hamar urtez grabatu zuten Marion Cajori-k eta Amei Wallach-ek Louise Bourgeois artista; New Yorkeko estudioan lanean, erakusketetan eta abar. Horren emaitza izan zen *Louise Bourgeois. The Spider, The Mistress and the Tangerine* filma (2008). Erakusketa dela eta, pelikula emango dugu Museoko Entzungelan. Maiatzak 8 eta 22, biak igande.

## Katalogoa

Louise Bourgeois *Gelak* bere obra zabalaren eskultura-multzo berritzaileenetako eta iraultzaileenetako bat dira. Erakusketa honen katalogoa da gaur egun arte *Gelak* lanei buruz inoiz egin den azterketa sakonena. Pieza horietako bakoitzaren katalogazio osatua eskaintzen du. Bertan, lanak ikusi diren erakusketa nagusien eta pieza horien inguruan plazaratutako argitalpenak zehaztu dira. Gainera, Bourgeois sormen-prozesuaren elementu nagusiak aipatzen ditu, espazioari eta memoriari, gorputzari eta arkitekturari, kontzientziari eta inkontzientziari buruzko ideiak aztertzen dituzten Bart De Baere, Lynne Cooke, Kate Fowle, Jerry Gorovoy, Julienne Lorz, Griselda Pollock, Dionea Rocha Watt, Nancy Spector eta Ulrich Wilmes-en testuen bitartez.

## Azaleko irudia

Louise Bourgeois

*Gela (Azken igoera) [Cell (The Last Climb)]*, 2008.

Altzairua, beira, goma, haria eta zura

384,8 x 400,1 x 299,7 cm

Collection National Gallery of Canada, Ottawa

Argazkia: Christopher Burke

© The Easton Foundation / VEGAP, Madril

**Informazio gehiago:**

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Saila

Tel: +34 944 359 008

[media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)

[www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es)

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: [www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es/prentsa-eremua)(prentsa-eremua).

Prentsa irudiak  
*Louise Bourgeois. Izatearen egiturak: Gelak*  
Guggenheim Bilbao Museoa

**Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua**

Museoaren webguneko prentsa eremuan ([prensa.guggenheim-bilbao.es/eu](http://prensa.guggenheim-bilbao.es/eu)) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, [media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)

**Louise Bourgeois**

*Gela (Choisy) [Cell (Choisy)]*, 1990–93

Marmola, metala eta beira

306,1 x 170,2 x 241,3 cm

Collection Glenstone

Argazkia: Maximilian Geuter

© The Easton Foundation / VEGAP, Madril



**Louise Bourgeois**

*Gela II (Cell II)*, 1991 (xehetasuna)

Margotutako zura, marmola, altzairua, beira eta ispilua

210,8 x 152,4 x 152,4 cm

Collection Carnegie Museum of Art, Pittsburgh

Argazkia: Peter Bellamy

© The Easton Foundation / VEGAP, Madril



**Louise Bourgeois**

*Gela VI (Cell VI)*, 1991

Margotutako zura eta metala

160 x 114,3 x 114,3 cm

Honen eskaintza: Hauser & Wirth and Cheim & Read

Argazkia: Christopher Burke

© The Easton Foundation / VEGAP, Madril



### Louise Bourgeois

*Logela Gorria (Gurasoak) [Red Room (Parents)]*, 1994 (xehetasuna)

Zura, metala, goma, oihala, marmola, beira eta ispilua

247,7 x 426,7 x 424,2 cm

Bilduma pribatua, honen eskaintza: Hauser & Wirth

Argazkia: Maximilian Geuter

© The Easton Foundation / VEGAP, Madril



### Louise Bourgeois

*Barruan eta kanpoan (In and Out)*, 1995

Metala, beira, igeltsua, oihala eta plastikoa

Gela: 205,7 x 210,8 x 210,8 cm.

Plastikoa: 195 x 170 x 290 cm

Collection The Easton Foundation

Argazkia: Christopher Burke

© The Easton Foundation / VEGAP, Madril



### Louise Bourgeois

*Armiarma (Spider)*, 1997

Altzairua, tapiza, zura, beira, oihala, goma, zilarra, urrea eta hezurra

449,6 x 665,5 x 518,2 cm

Collection The Easton Foundation

Argazkia: Maximilian Geuter

© The Easton Foundation / VEGAP, Madril



### Louise Bourgeois

*Igarobide arriskutsua (Passage Dangereux)*, 1997

Metala, zura, tapiza, goma, marmola, altzairua, beira, brontzea, hezurak, lihoa eta ispiluak

264,2 x 355,6 x 876,3 cm

Bilduma pribatua, honen eskaintza: Hauser & Wirth

Argazkia: Maximilian Geuter

© The Easton Foundation / VEGAP, Madril



### Louise Bourgeois

*Gela VII (Cell VII)*, 1998

Metala, beira, oihala, brontzea, altzairua, zura, hezurak, argizaria eta haria

207 x 221 x 210,8 cm

Bilduma pribatua, honen eskaintza: Hauser & Wirth

Argazkia: Christopher Burke

© The Easton Foundation / VEGAP, Madril



### **Louise Bourgeois**

*Gela XXVI (Cell XXVI)*, 2003 (xehetasuna)

Altzairua, oihala, aluminioa, altzairu herdoilgaitza eta zura

252,7 x 434,3 x 304,8 cm

Collection Gemeentemuseum Den Haag, Haga, Herbehereak

Argazkia: Christopher Burke

© The Easton Foundation / VEGAP, Madril



### **Louise Bourgeois**

*Dama laguntzailea (Lady in waiting)*, 2003

Tapiza, haria, altzairu herdoilgaitza, altzairua, zura eta beira

208,3 x 110,5 x 147,3 cm

Collection The Easton Foundation

Argazkia: Christopher Burke

© The Easton Foundation / VEGAP, Madril



### **Louise Bourgeois**

*Gela (Azken Igoera) [Cell (The Last Climb)]*, 2008


Altzairua, beira, goma, haria eta zura

384,8 x 400,1 x 299,7 cm

Collection National Gallery of Canada, Ottawa

Argazkia: Christopher Burke

© The Easton Foundation / VEGAP, Madril



### **Erretratuak:**

**Louise Bourgeois** 1975ean, AVENZA (1968–69) latexezko eskultura jantzita, gerora *Aurre Egin (Confrontation, 1978)* lanaren parte izan zen.

Argazkia: Mark Setteducati

© The Easton Foundation / VEGAP, Madril



**Louise Bourgeois** *Artikulatutako Gordelekua (Articulated Lair)* (MoMAren bildumakoa, New York)

lanaren barruan 1986an.

Argazkia: © Peter Bellamy

© The Easton Foundation / VEGAP, Madril

